

Oñati'ko Unibersidadea

JOSE I. LASA.

Oñati-ko seme zen Rodrigo Mercado de Zuazola gotzaiak, berak zituen doaiekin, eta izan zituen karguekin, ontasun ugari lortu zitun, aberats biurtu arteraño. Izan ere bere tituluen artean tamaña onetakoak zitun: Presidente de la Chancillería Real de Granada —orduan Españi-ko Audiencia Real-etan bigarren inportanteana—, Erregeen aolkulari, eta abar.

Bere lenengo aldian, bere diru ta guzti, arkiteturari ekin zion, eta ordukoak dira Oñati-ko Parrokiaren klaustroa eta Piedad-eko kapilla. Bigarren aldian, berriz, zeregin obe ta aundiago bati atxiki zion bere kemena: Bear-tsuentzako ikastola, eta Unibersidade bat egiteari, alegia. Bere ustean, ain zuzen, Iru Probin-tzietako semeentzat izango zen

Oñati-ko Unibersidade ori. Izan ere, bai Paulo III-garrenari, baita Oñati-ko Agintariei zuzendu zizkien eskutitzetan, giputz, bizkaitar eta arabarren buru-azkartasunak aipatzen zitun. Eta baita ere, Iru Probintzi aue-tako semeei ekarriko lieken etekiña.

Cisneros kardinalaren egunetako izaki, batzuk diotenez, onek Alcalá-ko Unibersidadea egitean eman pausoak jarraitu nai izan omen zitun. Baiña ezin diteke baztertu bere erriarenganako zuen maitasun beroa, apaiz egin ezkeroztik —A. J. A. Lizarralde-k dionez, beñepein—, bere jaioterriara itzuli ez bazan ere. Bere bizitzan, eskutitz baten dion bezela, bere erriari ikustalditxo bat egitea nai izan omen zuan, baiña zituen eginberrak eta orduan batetik bestera ibiltzeko ziren zailtasunak kanpoan lotu zioten.

Bere asmoak etziran bere uste-kizunen neurrian bete. Baiña onek ez du esan nai Oñati-ko Unibersidadeak on aundiak ekarri ez dituanik. Bere gurarien betetzeari aurrean jarri zitzaion oztopoa, ain zuzen ere, bere azken urteetan diru-urri ibilli zela da,

bere eskutitzetan agertzen denez. Eta, bearbada, baita ere Euskal-Probintzien laguntzaren exkaxtasuna. Bai, egia da, Gipuzkoako Probintzia Latin eta Filosofia-ko katedrak noizbeinka bere kontu artu zituela, baiña uste dugu geiago ere egin zezakeala. Baita Bizkai-k eta Araba-k ere jarri zizkiela bi katradai —probintzi bakoitzak bati— beren saria 1771-eko urtean. Bere jaioterriak al zuenakin lagundu zion Unibersidadearen martxari, eta batzuetan al baiño geiagokin ere bai, batez ere asierakoan, Unibersidadeagatik zor mordo bat egin zituenean. Eta alimoarekin, zer esanik ere ez. Beti izan zuen bere izatearen ardura. Asierasieratik erakutsi ziran: Teologia, Kanonak, Legeak eta Arteak. Bere asiera —atal batzuk asi ziran— 1542-ko urtean izan zen.

Gizon ospetsu asko irten dira Oñati-ko Unibersidadeko irakasle ta ikasleen artetik: Gotzai, kapitan, jakintsu. Unibersidade onen semeetako bat, eta lenengoetako, Felipe II-garrenaren kronista izandako Esteban de Garibay jauna dugu.

Bere bizitzako urte luzeetan

aldaketa aundiak izan ditu, bere goraka-beerakak. 1795-garren urtean Frantzia-ren inbasiokoan, irakasle talde batek Gazteiz-era alde egin zuen eta an bere irakaskuntzak jarraitu. Geroztik, bigarren maillako Probintziko Instituto nagusia, Nekazaritza-ikastola praktikua; Karlista-Unibersidadea, Errege ta Aita Santu zaindaritzapeko Unibersidadea, Apaizgaitegi txikia. Apaizgaitegi txiki au 1884-tik 1892-ra bitartean Laterandarren ardura-pean egon zen. Asko izan dira emendik igaro direnak eta beren

artean 1884-87 bitartean Filosofi kursoak bete zituen Mateo Mujika ta Urrestarazu Gotzai Jauna.

Geroago bigarren maillako Irakaskuntza Institutoa eta leen maillako ikastola biurtu zuten, Marista-en ardurapean. Berriz ere bigarren maillako Irakaskuntza Institutoa izendatu dute.

Itzuliko al zaizkio aspaldiko aunditasun aiek? Etorriko alda, sortu zuenaren asmoak betez, Iru Probintzietako Unibersidade izatera?

Espero dugu, eta nai genuke.